

# ETXEKO ENPLEGUA

## EZKUTUKO EKONOMIATIK

# ATERA



### Jardunaldia

**Bilbon, 2010eko apirilaren 29an**

**Bolunta, Ronda kalea z/g (Ribera ondoan)**

Antolatzaileak:

**ATH-ELE** ASOCIACIÓN DE TRABAJADORAS DE HOGAR DE BIZKAIA  
BIZKAIKO ETXE LANGILEEN ELKARTEA

**PA TH** PLATAFORMA ESTATAL  
DE ASOCIACIONES DE TRABAJADORAS DE HOGAR

Bizkaiko Emakume Asanbladaren lankidetzarekin



Etxeko enpleguaren erdia baino gehiago ezkutuko ekonomian murgilduta dago. Errealitate hau, etxeetan lan egiten dutenei betidanik eragin diena, posiblea da emakumeek (sektorearen % 90 baino gehiago) egin-dako lana delako eta lan horiek beharrezkoak izan arren, gizarteak aintzat hartzen ez dituelako. Emakume etorkinen sarrerak beste injustizia berri bat eragin du: lan egin eta pertsonak zaindu arren, paperak ukatzen zaizkie eta, horrenbestez, ez daukate ezkutuko ekonomiatik ateratzerik.

Etxeko bost langiletik lauk umeak edota mendekotasun egoeran dauden bestelako pertsonak zaintzen dituzte eta beste ezein moduz artatzea aurreikusten ez diren egoerak arintzen dituzte.

Uneotan espainiar gobernuaren lan merkatuaren eta gizarte segurantzaren erreforma prestatzen ari da. Jardunaldi honen helburua da sektorean ezkutuko ekonomiak eragiten dituen errealitate desberdinak argitara ateratzea eta neurriak proposatzea, datorkigun erreformak etxeko langile gehienak berriro ere ekonomia ezkutuan utzi ez ditzan.

Jardunaldiak gaian, edozein ikuspegitik, interesa daukaten pertsona guztiak bildu nahi ditu: eragindakoak (etxeko langileak), sindikalistak, feministak, profesionalak (enplegu zerbitzuetako edota GKEetako bitartekariak), berdintasunerako eragileak.



Colaboran:



### 2010eko apirilaren 29a, osteguna

19:00 **Ezkutuko ekonomia etxeko enpleguan.**  
*Emma Mateos*, Ioé Kolektiboko laguntzailea.

19:50 **Mahai-ingurua. Arazoari buruzko ikuspegi praktiko bat.**

**Bitartekaritza etxeko enpleguan.**  
*Rubén Requena*, Espainiako Caritas.

**Atzerritarrak eta etxeko enplegua.**  
*Oscar Vellisca*, abokatua, atzerritartasunean aditua.

**Esperientziak agintzen dituen ezinbesteko erreformak.**  
*Isabel Quintana*, ATH-ELEko lege-aholkularia.

**Emma Mateos** Ioé Kolektiboko ohiko laguntzailea da. Gizarte ikerketen arloko talde horrek urteak daramatza ezkutuko ekonomiak etxeko enpleguan daukan eragina aztertzen, eta ikerketa aitzindaria egin zuen 1987an, etxeko zerbitzu eta lanei buruzko erregimen berezia onartu eta gutxira.

**Rubén Requena**, Espainiako Caritaseko enplegu teknika-ria da. Erakunde horrek urteak daramatza irabazteko asmorik gabeko bitartekaritza egiten etxeko lanaren arloan, horrek eskariari eta eskaintzari buruzko ikuspegi zehatza ematen dio, baita eremu horretan dauden gabeziei buruzkoa ere.

**Oscar Vellisca** abokatua da. Atzerritartasunean aditua, aholkularitza ematen du erregularizazio prozesuetan. Enplegtzaileek prozesuan laguntzeari uko egiten diotenean, aurre egin behar izaten die sortutako arazoari.

**Isabel Quintana** Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteko lege-aholkularia da. Enplegtzaileekiko gatazka egoera daukaten langileak informatu eta defendatzen ditu eta ondo ezagutzen ditu egungo legeriaren ahultasunak, langileei euren eskubideak aitortuak izatea eragozten dietenak.